

Toribio Echevarria Funtsa



Identifikazio-eremua

Erreferentzia-kodea	ES20030_FTE
Izenburua:	Toribio Echevarria Funtsa
Data	1922/1970
Deskripzio maila	01 - Funtsa
Bolumena:	12 kaxa.

Testuinguruaren eremua

Ekoizlearen izena.

Toribio Echevarria Ibarbia.

Iruzkin biografikoa

Eibarren jaio zen 1887ko apirilaren 27an, Txiriokaleko 6an; Nicanor Echeverria eibartarraren eta Isabel Ibarbia gasteiztarraren semea. Hamairu urterekin hasi zen grabatuan ikasten. Udal idazkari lanpostua eskuratu zuen lehiaketa bidez. Irakurzaletasunak laster bultzatu zuen politikarekiko interesa biztera; arazo sozialak eta klase arteko borroka zituen kezka. PSOE alderdian eta UGT sindikatuan sartu zen; sozialismo utopikotik sozialismo pragmatikorako bidearen aitzindarietako bat izan zen. Eibarko Herriko Etxea eraikitzeko orduan sendo hartu zuen parte; baita aurreneko kontsumo eta industria-kooperatibak eratzerakoan ere. Bere lana eta aholkuak funtsezkoak izan ziren, 1920an, Euskal Herriko lehenengo kooperatiba industrial modernoa sortzerakoan, Alfa kooperatiba sortzerakoan alegia. Behargin kooperatibistak eurak izan ziren Toribio Etxebarriari hango gerentea izan zedin eskatu ziotenak; kooperatiba laster igaro zen pistolak egitetik josteko makinak egitera. Bigarren Errepublikan eta gerratean bete-betean aritu zen lanean; gerra amaitzerakoan, erbestera joan behar izan zuen. Venezuelako Caracas hiriburuan bizi zen baina Frantzia, Mexikon, Irlandan eta Ingalaterran ere egon zen. "[El Socialista](#)", "Euskera",



"Euzko-Gogoa", "Egan", "Olerti", "Eibar" aldizkariak eta egunkariak ezagutu zuten Etxebarriaren luma. Eibarrekin oso lotura estua du: hura ez dago ulertzerik herriak berak dituen ezaugarri berezien barruan kokatzen ez bada. Lotura hori bere bizitzaren lorratzetan ikusten da: Eibarren igaro zituen bere bizitzaren urterik garrantzizkoak, jaio zenetik gerra osterara arte –Errepublikaren lehenengo urte bietan izan ezik, Campsaren ordezkari izan baitzen Madrilen-, gerra ondoren, exiliorako bidea hartu behar izan baitzuen. Pentsakera aldetik errepublikazalea eta sozialista, Alfa kooperatibaren hasierak bizi izan zituen; haren sortzaile eta gerente izan zen. Gerra amaitu ondoren exilio luzeari ekin zion; 1941era arte Frantzia bizi izan zen, lehendabizi Parisen, han, Prietok zuzentzen zuen errepublikanoen aldeko laguntza-batzar bateko administratzaile nagusia izan zen; gero, Toulouse aldera joan zen bizi izatera. Caracaserara joan zen, eta han argitalpen etxe bateko gerentzia-lanetan aritu zen, hainbat aldizkaritan idazten zuen eta irratian ere aritu zen. Sasoi hartan asko idatzi zuen eta karta-harreman handia izan zuen Euskal Herriko lagunekin, pentsalari eta pertsonalitate politiko askorekin. Caracasen hil zen 1968an.

Artxibo-historia.

Dokumentuak, Toribioren alabak, Isabel Etxebarria andreak, 1987an entregatu zituen Caracaseko Espainiako Enbaxadan diplomazia-baliza bidez, eta Eibarko Udalean Aurora Bascaran alkatesak jaso zituen, dohaintza onartuta. Urte hartako irailan funts edo dokumentu guztiak "Irargi"ra eraman ziren, Eusko Jaurlaritzaren Dokumentu Ondarearen zentrora, mikrofilmatuak izan zitezten. Udalari, 1987ko urrian itzuli zitzaizkion. Funts edo fondo hori Euskara Sailean egon zen jasota eta udal artxiboaren esku utzi zen 1992ko otsailean.

Sartzeko modua.

Familiak 1987an egindako dohaintza.

Edukiaren irismena eta egitura

Irismena eta edukia.

Toribio Etxebarria Fondoaren dokumentazioa, batik bat, bere pentsalari-lanari eta bere pentsakera politikoari buruzkoa da.

Bere lanen artean argitalpenak azpimarratu behar dira: politikari buruz, euskarari buruz, Euskal Herriaren gainean, erlijioaz, bertsogintza, eta azkenik, sasoi hartako politikagintzaren pertsonaia garrantzizkoekin gutun bidez eduki zuen hartu-eman, esate baterako Indalecio Prietorekin.

Balorazioa, aukeraketa eta ezabaketa.

Antolamendua.

Dokumentazioa kaxetan dago sartuta eta mikrofilmazioa egiteko egin zen inbentarioa ere badu. Fondo hau multzo handi bitan banatzen da: Alde batetik bere liburuak, eta bestetik Toribio Etxebarriaren hainbat eskuizkribu, besteak beste, gutuneria guztia.





Erabilera eta sarbidea: Baldintzak

Eskuratzeko baldintzak

Izaera publikoko artxibo-funtsa. Sarbide librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin.

Hizkuntza / dokumentuen idazkera (k).

Gaztelera/Euskara.

Ezaugarri fisikoak eta betebeharrak teknikoak.

Dokumentazioa paperean, eta kopia mikrofilmata 35 mm.an

Dokumentazio elkartua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udala

Kopien existentzia eta kokalekua.

Eusko Jaurlaritzaren Mikrofilmazio Zentroa. Irargi.

Argitalpenen oharra.

- . - Eibarko aditza. Euskera Batzordia. Eibar, 1998
- . - Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpideak. Euskera Batzordea. Eibar, 1997
- . - Eibarko euskera: gutxiespenaren historia. Antxon Narvaiza. Eibar, 1998
- . - Eibarko idazlien antologixia. Antxon Narvaiza. Enrique Izagirre. Mirian Lizarralde. Eibar, 2000
- . - Toribio Etxeberria Ibarbia (1887-1965). Antxon Narvaiza. Eusko Jaurlaritza, 1999
- . - Eibarko Euskeriaren unidate didaktikua. Mikel Sangroniz. Eibarko Udala, 2001.. - ARETA, Nerea: 2002: Eibarko euskara. Morfologiako alor baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma, Deustuko Unibertsitatea, Doktorego Tesia.
- . - BASAURI, Serafin; SARASUA, Asier (Koord.): 2003: Eibarko hiztegi etnografikoa, Oñati; Eibarko Euskara Mintegia, Eibarko Udala

Deskribapen Kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskribazioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauk

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2008-04-07

